

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Energia
eraginkortasuna
hobetzen**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Haurren eta nerabeen kontrako sexu
indarkeriak salatzekeo telefonoa:
688 758 299



Ale honetan zer?

Askotariko lan ildoak	3
Autokontsumoan sakontzen.....	4
Birkarga puntu gehiago herrian	6
Urtebeteko ibilbidea, energiaren gaineko argibideak ematen	7

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonon.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91



Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuak erregistratu, errolda agiriak atera, eskaera orokorrak eta lizentzia eskaerak aurkeztu edo kontsultak egin ditzakezu bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.

Askotariko lan ildoak



Azpeitiko Udalak lanean jarraitzen du energia eredu iraunkorrako, bidezkoago eta ingurumenarekiko errespetutsuago baten alde. Eguzki energiaren alde egin duen apustua da adibideetako bat: eraikin publikoetan instalatu dituen plaken bidez, 349kWko potentzia fotovoltaikoa lortu du.

**Hamar urtean,
energiaren kontsumoa
%22 murriztu du Udalak**

Hamar urtean, 2013tik 2023ra bitartean, energiaren kontsumoa %22 murriztea ere lortu du, eta bide onetik doa legeak 2030erako eta 2050erako administrazio publikoei jarri dizkien helburuei begira. Etorkizunean etor daitezkeen joeretarako ere ari da prestatzen, eta ibilgailu elektrikoentzako kargagailuak jarriko ditu enpresen eskura.

Udaletik harago, Azpeitiko Klima eta Energia Planean bilduko ditu aurrera begira herrian hartu beharreko bestelako neurriak, eta herritarrek ere izango dute ekarpenak egiteko aukera. Plan hori urte amaierarako amaituta egotea espero da.



Autokontsumoan sakontzen

Azpeitian, igerilekua da argindar gehien kontsumitzen duen udal eraikina. Haren atzetik datoz Soreasuko eraikina eta Azoka Plaza. Azpeitiko Udalaren helburua da udal eraikinetan dituen plaken bidez ahalik eta energia gehien aprobetxatzea.

Bide horretan, hainbat urrats egin ditu azken urteotan. Trantsizio energetikorako plan estrategikoan jasotakoa betez, eguzki plakak jarri ditu, eta, gaur egun, guztira, 349kW-ko potentzia fotovoltaikoa dago instalatuta udal jabetzako eraikinetan: Soreasun 100kW, Azoka Plazan 100kW, udaletxean 44kW, igerilekuan 100kW eta Sindikatu Zaharrean 5 kW. Hain zuzen, Azoka Plazako eta

Soreasuko plakak izan dira jartzen azkenak, iazko urte bukaeran.

2024an egindako azterketa batek erakusten du instalazioak ondo dimentsionatuta daudela, eta eraikinen energia beharrei ondo erantzuten dietela; izan ere, autokontsumoaren batez besteko ehunekoa %85 da.

Hala ere, kontsumo-koefizienteen banaketan hobekuntzarako tarte bat ere ikusten da: orduz orduko banaketaren kontsumo-esleipenera pasatuz gero, posible izango litzateke autokontsumoaren ehunekoa %90era igotzea. Aurrera begira, herriko hiru ikastetxeetan ere eguzki plakak jartzea sustatuko du Udalak.

ENERGIA KONTSUMOAN, %22KO JAITSIERA

Eguzki energiara mugatu gabe, gainerako arloetan ere egin ditu aurrerapausoak. Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legeak esaten du administrazio publikoek %35 murriztu behar dutela udal eraikinen, argiteriaren eta ibilgailuen energia-kontsumoa 2030erako (erreferentzia urtetzat 2013a hartuta), eta %60 2050erako. Bide onetik doa Azpeitiko Udala, 2013tik 2023ra bitartean %22 murriztu baitu energia kontsumoa.

Era berean, lege horrek esaten du, energia elektrikoa eskuratzeko lizitazioetan, administrazioek eskuratzen duten energiak %100 berriztagarria izan behar duela, eta hori ere betetzen du Azpeitiak. Udal eraikinetan, gaur-gaurkoz, ziurtagiri energetikoetan du erronkarik handiena Udalak, izan ere, gehienek D kalifikazioa dute kontsumoan zein igorpenean.

Autokontsumoaren batez bestekoa %85 da

HERRIKO ETA ESKUALDEKO PLANAK

Modu zabalagoan, udal eraikinetatik harago, Azpeitiko Klima eta Energia Plana osatzen ere ari da Udala.

Diagnostikoa amaituta dago, eta ekintza plana diseinatzen ari da orain. Energia aurrezpena, energia berriztagarrien ezarpena, eraginkortasuna, mugikortasun jasangarria, ekonomia zirkularra, hainbat klima agertokitara egokitzeko neurriak eta abar biltzen ditu plan horrek. Herritarrei ere emango zaie ekarpenak egiteko aukera, eta plana urte amaierarako bukatuta egotea espero da.

Horrez gain, Iraurgi Berritzen garapen agentziaren bidez, UUrola Erdiko Klima eta Energia Plana ere landu du Azpeitiak.

Azpeitiko Klima eta Energia Plana aurtan bukatzea aurreikusten da



Birkarga puntu gehiago herrian

Etorkizunean, auto elektrikoek gero eta hedapen handiagoa izango dutela uste da, eta horretarako prestatzen ari da Azpetia ere. Alde batetik, Udalak hamar kargagailu eskaini dizkie enpresei, beren eremu pribatuetan jar ditzaten; bestetik, Ekindarrek ere hamar birkarga puntu jarriko ditu herrian.

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen arabera, administrazio publikoek sektore pribatuarekiko lankidetzaren sustatu behar dute. Lankidetzaren horren barruan sartzen dira, besteak beste, eraikin pribatuetan, merkataritza-guneetan, industrietan eta ibilgailu asko ibiltzen diren guneetan karga puntuak jartzen laguntzea eta birkarga sare sendoa bat sortzen laguntzea.

Lege hori betetz eskaini dizkie Udalak hamar kargagailu enpresei. Otsailean, bilera bat egin zuten udal ordezkariak herriko enpresekin, proposamena aurkezteko eta xehetasunak emateko, eta interesa agertu zuten enpresek. Eskerak aurkezteko epea zabalik dago. Kargagailuak kargatze puntu bikoitzekoak izango dira: 22kW hartune bakoitzeko. Espeziean emandako laguntzat hartuko dira.

EKINDARRENAK, EKAINERAKO MARTXAN

Ekindarrek jarriko dituen kargagailuek ere ezaugarri berberak izango dituzte. Hamar izango dira, eta herriko hainbat puntutan egongo dira. Instalazioari lotutako obrak dagoeneko amaituta daude horietako batzuetan, eta lehen kargagailuak ere jarri dituzte. Aurreikuspenen arabera, ekaina bukatzen denerako obra guztiak bukatuta eta kargadoreak martxan egongo dira.



Ekindarren kargagailuen kokalekuak:

Kiroldegiko aparkalekua

Igerilekuaren ondoan

(azken urteotako leku berean)

Soreasuko aparkaleku publikoan

Loiolako Inazio Etorbideko 49 zenbakian

(edukiontzien eta zebra-bidearen artean)

Alberdieneako aparkaleku publikoan

San Martin Estratan

(Helduen Hezkunza Zentroaren aurrean)

Loiolako Ignazio Etorbideko 79 zenbakian

Loiolako tren geltoki zaharraren ondoan

Euskal Herria auzoko 33 zenbakian

Urrestilla erdiguneko aparkalekuan



Urtebeteko ibilbidea, energiaren gaineko argibideak ematen

Duela urtebete ireki zuen Azpeitiko Udalak Energia Bulegoa, argindarraren kontsumoari, fakturei eta energia eraginkortasunari buruzko zalantzak dituzten herritar guztiei doako aholkularitza pertsonalizatua emateko. Urtebetera, datuek erakutsi dute energiari buruzko erabaki informatuak hartzeak eragin positiboak dituela kontsumoan eta aurrezkian.

**Berrehun herritar baino
gehiago joan dira Energia
Bulegora urtebetean**

Lehen urte honetan, berrehun herritar baino gehiago joan dira bulegora. Horietatik %43k argiaren fakturari lotutako laguntza eskatu dute, eta %6k gasaren eta argiaren fakturekin lotutako zalantzak izan dituzte. Gainerako herritarrak, %51 gutxi gorabehera, energia berriztagarriekin lotutako dirulaguntza partikularrei, Ekindar kooperatibari eta birgaitze energetikoko programei buruzko informazioa jasotzera joan dira.

Done Jakue kalean dago Energia Bulegoa, Frontoitxiki ondoan, eta egunero egoten da irekita: astelehen, astearte, asteazken eta ostiraletan, 10:00etatik 14:30era, eta ostegunetan, 17:00etatik 19:30era. Komeni da joan aurretik txanda hartzea, 943 119 806 zenbakira deituta edo energia@azpeitia.eus helbidera idatzita.



Energia Bulegoa

943 11 98 06

energia@azpeitia.eus

Ordutegia:

Astelehen, astearte, asteazken
eta ostiraletan, 10:00etatik
14:30era. Ostegunetan,
17:00etatik 19:30era.

www.azpeitia.eus